

laburrean

PAKISTAN

■ Lau estatu batuar eta bertako herritar bat hil dituzte Karachin

UNION TEXAS petrolio konpainia estatu batuarrarentzat lan egiten zuten lau lagun eta pakistandar bat tiroka hil zituzten atzo goizean. Poliziak azaldu zuenaren arabera, langileak hoteletik irten ziren eta haiek eta ustez auto-gidari pakistandarra zihoazen ibilgailuari tiro egin zioten lanerako bidean. Poliziak esan zuen ondo pentsatutako atentatua izan zela. X

BRASIL

■ Tribu baten genozidioagatik indemnizazioak egindu ditu epaile batek

NOVELY VILANOVA da Silva Reis epaileak Gobernuari agindu dio gutxieneko 4.000 soldata ordaintzeko (460.000 dolar) kalte moralengatik bizi-rik geratzen diren 200 bat panara indioei. Cuiabatik Parara bitarteko errepidea egin zen haiek bizi ziren lurraldetik barrera, eta langileak indioekin hartu-emanetan jartzean 175 indio hil dira azken hiru urteetan gripea eta beherakoengatik. Xingu parke nazionalera eramandakoak, berriz, ez ziren bizi baldintza berrietara ohitu. X

HUNGARIA

■ NATOn sartu edo ez erabakiko dute herritarrek igandean

IPAR Atlantikoko Tratatuaren Erakundean (NATO) ez sartzea erabakitzen badute herritarrek igandean egingo den erreferendumean, Gobernuak erakundean sartzeko prozesuari ezetza eman beharko diola esan zuen atzo Defentsa Ministerioi Estatu idazkari Istvan Fodor-ek. Egindako galdeketen arabera, herritarren % 22k ez dute NATOn sartu nahi eta % 18k ez dakite baietza edo ezetza eman. X

Israelgo lehen ministroaren alderdiko sektore asko bere kontra jarri dira

Hautagaiak aukeratzeko sistemaren inguruko eztabaidak krisi larria piztu du Likud-en

Likud Blokeko Batzorde Zentraleko ordezkariak bertan behera utzi dute hauteskundeetarako hautagaiak alderdi barruko bozketa bidez aukeratzeko sistema. Ministroen Kontseiluko kideak eta legebiltzarkide asko horren aurka agertu dira, eta Netanyahu bultzatutako «joko zikina» dela uste dute.

Agentziak/Jerusalem

BENJAMIN NETANYAHU Israelgo lehen ministroaren alderdi barruan, Likud blokean, krisi larria sortu da 2000. urteko hauteskundeetarako hautagaiak aukeratzeko sistema dela eta. Hautagaiak alderdi barruko bozketa primarioen bidez aukeratzearabaki zuten 1996ko hauteskundeetarako, EEBetako alderdi nagusiek -demokratak eta errepublikanoak- erabiltzen duten sistema bereganatuz. Horrela, Likud blokeko 200.000 militanteen artean egindako bozketa bidez aukeratu zituzten hautagaiak.

Sistema hori bertan behera utzi zuten atzo Likud-eko Batzorde Zentraleko ordezkariak, bozketa egin eta gehiengo hautagaiak bozketa bidez aukeratzearen alde agertu eta gero. Horren ordez, politikoen esku geratu da orain 2000. urteko hauteskundeetarako hautagaiak aukeratzeara.

Erabaki horrek haserre handia sortu du alderdiaren barruan: Batzorde Zentraleko 3.500 ordezkarietatik gehienak hauteskunde primarioen kontrakoak baziren



Benjamin Netanyahu (ezkerrean) ongi etorria ematen Lloyd Axworthy Kanadako Atzerri ministroari. AP

ere, aldekoek oso erreakzio gogorra izan dute eta alderdia zatitzearekin egin dute mehatxu. Hala, ber, Ministroen Kontseiluko kide guztiak eta legebiltzarkide gehienak hautagaiak bozketa bidez hautatzen segitzearen aldekoak dira. «Demokraziaren kontrako kolpe gogorra da hori», adierazi zuen, esate baterako, Telekomunikazioetarako ministroak, «alderdia suizidiora eramango du».

Erabaki horren atzean Benjamin Netanyahu lehen ministroa eta haren konfiantzazko gizona Ivete Liberman daude, Ministroen Kontseiluko kideak eta legebiltzarkide askok salatu dutenez. Haien iduriko, botere guztia berenganatzeko asmoz bultzatu dituzte Netanyahu eta Libermanek Batzorde Zentraleko ordezkariak bozketa primarioen sistema bertan behera uztera. «Moralik gabeko boterezale batzuen

esku dago Likud, bere kolaboratzaileei iruzur egin dien gizon baten esku», esan zuen Zeev Biniamin Beguin diputatu eta Menajen Beguin Likud-en sortzailearen semeak Netanyahu erreferentzia eginez.

1996an hauteskundeak irabazi zituenetik Likudek bizi duen krisi larriena da oraingoa, eta likar honen ondorioz hurrengo hauteskundeak gal ditzake analisten arabera. X

Kongoko Errepublikako boterera heldu denetik Kabilak giza eskubideak ezabatu egin dituela diote Nazio Batuek

Lehendakariaren indar tutsiek ehundaka mila errefuxiatu ruandar hil ote dituzten ikertu du NBek

Agentziak/ New York

KONGOKO ERREPUBLIKAKO herritarrek «etorkizunean ez dute jakingo zer diren giza eskubideak eta demokrazia, epe laburrera eta erdikora ez dagoelako proiektu demokratikorik landuta eta boterea kontrolatzeko gai den inor ez dagoelako». Halaxe adierazi zuten atzo Nazio Batuek. Roberto Garreton, Nazio Batuek Kongoko Errepublikan duten ordezkaria, oso zorrotz mintzatu da Laurent-Desire Kabila lehendakariaren aurka, Nazio Batuek argitaratu duten txostenean.

Kabilak Mobutu Sese Seko diktadore zena boteretik kendu zuen joan den maiatzean. Mobuturen aurkako borrokan Kabilak zuzendutako indar armatu tutsien esku ehundaka mila errefuxiatu

ruandar hil ote diren ikertu zuen Nazio Batuen ordezkariak, eta Kinshasatik itzuli ondoren landu zuen txostena Garretonek. Kinshasako Gobernuak ez zion utzi ikerketa egiten Nazio Batuen lehen ordezkariari, Garretonekin mesfidati zelako. Nazio Batuek bigarren ordezkari bat bidali zuen geroago, eta horri ere traba handiak ipini zizkion Kongoko Errepublikako Gobernuak.

Kabilak «giza eskubideak ezabatu ditu biziari, askatasunari eta herritarren segurtasunari dagokionez», Garretonen hitzetan. Nazio Batuetako ordezkariak esan zuen bizitza politikoa parte hartzeko eskubideak ezabatu egin direla, eta ez direla neurriak aplikatu herritarrek kultur, gizarte eta ekonomi eskubideez bali daitezzen.

Garretonen txostenak zuzenean aipatzen ditu tutsiak. «Talde etniko bat bestelako ehundaka talderen gainetik dago, eta horrek askotan gatazkak eragiten ditu». Kabilak boterea eskuratu zuenean jarritako estatu egitura berrian alderdi bakarra da «botere ahalguztiduna». Laurent-Desire Kabila lehendakariaren esku dago botere eragilea eta legegilea, epaileek eta magistratuek hari erantzuten diote, eta lehendakariak agindutakoaren aurkako lege guztiak indargabetu egiten dira, Roberto Garretonek Nazio Batuen txostenean azpimarratu zuenez.

Gauza onak ere gertatu dira, ordea, Laurent-Desire Kabila joan den maiatzean boterera heldu zenetik Kongoko Errepublikan: harrapaketak eta estortsioa

amaitu egin dira, hirietan segurtasuna handiagoa da eta delinkuentzia gutxitu egin da. X



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria